

## AURKEZPENA

Nork esan du janari azkarra ezin dela osasuntsua izan? Gizartea behatu ondoren, gure janari azkarra erostearen ohitura asetzeko baliabide bat eskaintzea ideia ona iruditu zaigu. Gaur egun biztanleriak denbora falta du sukaldean igarotzeko, eta honek ohitura txarrak ekarri dizkigula ohartu gara, horregatik, fast food kontzeptua aldatu nahi dugu. Gehienok janari azkarra erostera jotzen dugu maiz, baina janari hau osasuntsua ez dela denok dakigu. Badakizu egunero zenbat pertsonak kontsumitzen duten janari azkarra? Egunean 84.8 milioi pertsonak kontsumitzen dute janari azkarra mundu osoan zehar. Estatu Batuetan, adibidez, helduen %37k janari lasterra jaten du egunero, hau da, 50 milioi pertsona baino gehiagok herrialde horretan bakarrik. Eta gutxi balitz obesitateak gora egin du eta osasunak berriz behera, eta dena janari azkarra erosteagatik.

Gu Urretxu-Zumarraga Ikastolako lehen batxilergoko Xabi, Maialen, Naia eta Markel gara. Janari azkarraren arazo honi irtenbide bat aurkitu diogula uste dugu, janari azkarra osasuntsua bilakatzea. Honek gure enpresa eraikitzaera bultzatu gaitu.

Xamanama izeneko enpresa sortu dugu, etxeko janaria eskaintzen duen enpresa izango da. Bertan etxeko janari osasuntsua eskuratzeko aukera emango dugu, eta nahi izanez gero bertan jateko aukera ere egongo litzateke. Jakiak bertako baserrietako barazkiekin eta fruituekin prestatuta egongo dira, hots, kmo-ko janaria erabiliko dugu, adibidez, arraina, haragia eta barazki eta fruituak. Honek natura zaintzea eta bertako merkatuari aberastasuna ematea lortuko du, baserri eta herrietako produktuak merkatu handien itzalean gelditzen baitira. Horrez gain, gizartearen osasun maila handitzea ere gure helburu nagusienetako bat da, haien egunerokoan osasuntsu jaten ohitzea.

